

Gure lana Animali Leku izeneko enpresa-proiektu bat garatzean oinarritzen da. Proiektu honekin, animalientzako toki seguru eta egoki bat sortu nahi dugu, non ondo zainduko diren, jendeak bisitatzeko aukera izango duen eta adopzioak bultzatuko diren. Horrez gain, jendeari animaliak zaintzearen garrantziaz kontzientziazteko jarduerak eskaini nahi ditugu.

Animali Leku proiektua animalien ongizatea zaintzeko eta babesteko espazio bat sortzeko helburuarekin jaio da. Gune honetan, animaliek lasai bizitzeko aukera izango dute, eta jendeak haiekin konektatzeko esperientzia bizi ahal izango du. Hasieran, proiektuak behar dituen kostuak aztertu ditugu, hala nola instalazioak, materialak eta baimenak, baita martxan dagoen proiektuaren kostuak ere, adibidez, langileen soldatak eta mantentze-lanak. Era berean, diru-sarrerak nola lortuko ditugun ere zehaztu dugu, hala nola bisitarien sarrerak, tailerrak, adopzio-tasak eta dohaintzak. Jende berria erakartzeko, sare sozialak, kartelak eta tailerrak erabiliko ditugu, eta bezeroei fidelizatzeko, kalitatezko zerbitzuak, deskontuak eta tratu pertsonalizatua eskainiko ditugu. Komunikazioa sare sozialen, telefonoaren eta posta elektronikoaren bidez egingo dugu, eta zerbitzuak zuzenean gure instalazioetan eskainiko ditugu. Horrez gain, proiektua aurrera eramateko funtsezko baliabideak identifikatu ditugu, hala nola instalazio egokiak, tresnak, langile prestatua eta finantzaketa. Jarduera nagusiak animalien zaintza, bezeroei arreta pertsonalizatua eskaintzea, finantza-kudeaketa eta publizitatea egitea izango dira. Laburbilduz, Animali Leku gure proiektua da, eta haren bidez animalien ongizatea sustatu, jendearekin konektatu eta modu iraunkorrean zerbitzu bat eskaini nahi dugu. Gure helburua da jendeari animaliak maitatzen eta errespetatzen laguntzea